

14148

307

BAIONAKO  
JAUN APEZPIKUAREN LETRA

BERE DIOSESAKO APEZEI ETA FEDEDUNEI

JAINKORIK GABEKO ESKOLAZ



BAYONNE

IMPRIMERIE L. LASSERRE, IMPRIMEUR DE M<sup>gr</sup> L'ÉVÊQUE

—  
1910

ATV

33525

X



H. 70174  
F. 74132

XV  
31525

BAIONAKO

# JAUN APEZPIKUAREN LETRA

Bere diosesako apezei eta fededunei

## Jainkorik gabeko Eskolaz

---

Jainkorik gabeko eskolaz oraino ere solasa ; othe da deus beharragorik ?

Azkarri mintzatu dire hortaz berriki deputatuen bilkuran. Egia onik adi-arazi dute libertatearen alde daukatenek ; agerian ezarriz goraki burhasoen zuzenak eta etsaien chede ilhuna. Hauk bethi beren buruak ezin aski edertuz mintzo : ez ordean hitz bat : deusez ere urriki dutela, egin dauzkuten gaizkiak oro eginik. Eta bethi heienak handiago : ichilik gaudela, ez badugu nahi oraino bertzerik ikusi. Aitzina bethi, gerla ; bakerik eztukegu gehiago.

Alde batetik, Apezpikuek beren eginbidea bethetzen dute, burhasoak argituz ; ohar-araziz, Jainkorik gabeko eskolaren ondorioak zoin diren izigarri.

Bertze aldetik, zer ez derasate, beren kazetetan, gaichtaginek ? Zenbat nahaskeria eta gezur, arimen gaigarri ?

On da beraz, eta on baino hobe, burhasoak, jakin dezazuen egia garbiki : nola ditugun lothuak barne beltz diren bezalakoak, nahiz eta haurren arimak gal-arazi.

Orori mintzo gitzautzue ; badakigu, badirela zuen artean, behin sinetsia zutenak egiazki : hobe zela eskolan erlisionerik ez aiphatzea ; ez aiphatuz, bakotcha bere hartan utziz, haur eta burhaso, guziekilakoa eginen zuela hobeki eskolako nau-siak ; nehork deus erraitekorik etzukela. Ustekaria hortan kokatua zinuketena askok zuen gogo. Huna ondorioak ageri.

Apezpikuen hitzaren gainera, holetan hoin berriki deputatuen bilkuran erabili dituztenak ikusiz, beren baithan sarthu ahal dire balinba zuen artean zinez libertateari atchikiak direnak. Balinba ez ahal ditutzue onetsiko tirano batzuen chedeak eta egitateak.

Guk erranari behatu nahi ez direnek jakin bezate, nola min-

tzo diren hemen etsaiak berak; itsuen argitzeko ez baita halakorik.

Ez gabiltza minaren gainera zauri egite bilha. Erranen dute ba — zerbeit erran beharrez — errientak ditugula begietan. Zertako? Behinere ez ditugu-eta izan urrikariago. Ja errana dugu : ez girela errientei aiherr; zenbeitek herrietan gerla egiten badiote gure erlisioneari, apezei; jazarri bazaizko itsuski fedeari zenbeit, badirela bertze batzu, beren eginbidea behar bezala bethetzen dutenak, erlisionea errespetatuz bethi, ba eta haurren arimak; hitz bat eskolan ez erranez, haur bati kalte egitekorik, edo bihotzmin burhasoei. Eskerrak henen goraki halako errientei. Bertzalde, gu ez gira mintzo gizez, baina ba legez, lege makurrez; iduri ez daukutela ja eginik aski, berriz aitzina egitera doazkigutenez.

Argia guk pitz arau hil nahiz ari zaizku, edo bederen kezta-tu nahiz, ilhundu, nahasi. Behar deno piztuko dugu eta atchikiko bizirik.

Jainkoaz, erlisioneaz mintzatu gabeko eskola, *école neutre* : zer da hori, eta norat dago?

Dugun ikus : ea zer dioten hor hitz horiek berek; eta gero gizek hitzen araberako egitateak dituzten ala ez? Azkenik ihardetsiko diotegu, solasari darraikola, non nahi ahotik ahora dabilzan elhe makur zenbeiti.

Zer diote beraz hor *hitzek*? Erlisionerik gabeko eskola zer da? Hura da, erlisionea bazterrerat utziz, hartaz bertze diren ikastekoetan dagona : ikas mintzaten, ikas izkiriatsen, ikas gerthakariak, leihor eta itsasoen izenak, bideak; liburutan ala chifretan ikas.

Gizontasun izpi bat ere ba, ongia eta gaizkia elgarretarik eza-gutzeko doi : baina Jainkorik ez balitz bezala.

Solasak ekartzen badu erlisionearen izena, dagola han errientea hotz-hotza, ez edo ba, zer zaion erakutsi gabe, gure ala paganoen, ala edo zoinen Jainko : barentzat guziak bardin.

Horra zer litaken berenaz erlisionerik gabeko eskola. Zer zautzue hortaz?

Erlisionea bazterrerat uztea, gaineratikoen erakasteko haurrari, ez ditakena da. Batere denak buruz, aithortuko du : ez Jainkoa, ez gizonaren hastapena, ez erospena, ez Jesu-Kristo,

ez Eliza, ez Aita Saindua, ez ditazkela utz aiphatu gabe; nahi ala ez, gogora heldu zaizkola nor berari, gogotik ahora; den eskolarik aphaltena ez dezakezula egin, zure hitza boitaz erran gabe.

Alta Jainkoaz mintzatzea, erran gabe alde ala kontra zaren, hartaz trufatzea da. Alegiazko bitartekarien agur gutiziarik eztuela erakutsi du aski, erran duenak : *Ene aldè ez dena ene kontra da*. Jainkoari doakon zinezko errespetu bakarra da : haren ezagutzea eta adoratzea Jainko den bezala.

Egiazko erlisionea, ala gezurrezkoetarik edo zoin, ala gabea, oro bardin egitea, ezta gizontasuna.

Horra zertako, bertze orduz ja erran duguna oraiko eskoletan, iduri eta ikustatez bezala, nahi luketenei gure Jainkoa, Jesu-Kristo Gure Jauna ezarri, parrez par, gizonen erhokeriak asmatu jainko ez-deus edo deus baino gutiagoko batzuekin, hek eta hura bardin, ihardets ginezoketen goraki : eztugula nahi, eztela zuzen Jainkoa jainko eztirenekin emaita, nahas-mahas. Miletan ederrago ez aiphatzea.

Hortakotz da kondenatua erlisionerik gabeko eskola; Eliza buruzagi ezagutzen eztuena, lur huntako biziaz eta hemengotzat behar direnez gorago behatzen eztakiena.

Azken Aita Saindu zenak ziona : erlisionea eskolatik kenduz geroz, galtzeko irriskutan da fedea, ba eta jendetasuna, haur eta gazte, goiti doazinetan.

Fedea. — Alabainan ezpadu haurrak behinere aditzen eskolan erlisioneaz aiphu, bere baithan eginen du, nahi eta ez, erlisionea eztela baitezpadako gauza bat; hura ikas ala ez, begira ala ez, batetaratsu doala.

Gure etsai handienetarik baten arabera, « haur bat eskolatzearekin, hari erlisionearen ez erakastea, kentzea da. Jainkorik gabe alchatu haurra izanen da Jainkoaren etsai. »

Jendetasuna. — Jainkoak chutik ez daukana, lurrerat doa. Nork du argirik edo indarrik aski, gaizkirako jaiduren garhaitzeko? Gizonen baizik beldur eztena, nork atehik askotan? Berthuteak nahi du sakrifizio; khen, khen pocholutik. Zertako sofri? Berthutea zertako da? Deusetako.

Hola alchatu hurrek lanak eman ditzaten, gira beldur. « Zorigaitz erlisionerik gabeko eta guziz erlisionearen kontrako eskolak dauzkan erresumari ! Jainkoaren beldurra kenduz ge-

roz, ez dute buruzagiek zeri loth, zeren gainean berma. Bakotcha bere buruaren gidari eta nausi ; zer egin behar duen, zer ez, bera juje ; burzoro batek hartzen ditu oro. Nehon ez dauzke. Zimendurik gabeko etche bat haizeak deraman bezala doa zozietate guzia karraskan lurrerat. Ezta gehiago nehor buruzagi ; gaichtaginen indarra da gelditzen bakarrik nausi. »

Egia handia ! Badakigu hogoi-ta bortz urthe huntan horren berri.

Diote : burhasoek ez balinbadute nahi beren haurrentzat erlisionerik eskolan, eztakioketela bortchaz eman ; nahi ez duten burhasoen gatik dela egina legea : *eskolan erlisionerik ez aipa*. Eztugu galdatzen guk, bortchaz eman dakion erlisionea nehoi. Galdatzen duguna da : nahi ez luketelako bakar batzuen gatik ez ditzatela bortchaz ezar oro gabeturik.

Gureaz bertze erlisione bat nahi dutenak, edo batere ez, dau dela beren hartan. Heier ez aipa nahi ez duten erlisionerik. Bainan bat edo bertze ditakelakotz nahi eztuenik, orori khen ; baitezpada gose eta egarri direnek sofri, zeren zembeti ez dioten holetan barneak galdatzen .... hori ezta zuzen. Hori da bizkitartean lege delakoa.

Judu eta protestant, eta erlisionerik batere gabekoak oro multzoan emanik baino katoliko anhitz gehiago da Frantzian. Anhitz gehiago diren hauiek ezta galdatu egundaino, erlisionearen eskolatik kentzerik.

Ahur bat eztirenen gatik, legea bertze guzien kontra, zuzen dela hori?....

« Ehunetarik bat emazue badela sineste mikorik gabea, zion gizon handi batek ; ezta, bainan badela emazue. Bat harek galdatzen balu bakarrik, bere haurra utz dezoten Jainkoaz mintzatu gabe, paso ; bainan bertzerik du galdatzen. Galdatzen du, haur *bateko* haren gatik bertzeren haur lauetan hogoi-ta hemeretziak egon ditene erlisione hitz bat eskolan ikasi gabe ».

Diote oraino : gobernamentuarentzat eztela Jainkorik, eta beraz legearentzat ere ez. Ditaken atheraldi makurrenetarik bat horra non duzuen : populu guziak jasan behar buru huts edo nahasi batzuen erhokeria ! Zer zuzenez othe?

Angleterran, Ameriketean bada nehon bezenbat gizon sineste gabe ; bizkitartean hango gobernamentuak Jainkoa ezagutzen du, eta ohoratzen.

« Nahi ez dutenak daudela gabe; nehorik ez deie deus galdatzen. Baina gobernamentua popularekin bat; hau jainkotiar, hura ere ba; deus ez baita ederragorik, ez eta zuzenagorik.

« Frantzian bertzerik dugu ikusten. Zertako? Framazonak ditugulakotz nausi. Estakuru emanen dautzute : libértatea dutela nahi ororentzat.

« Gehien zuzena eta ona ezte lakotz bakar batzuen gogorako, hauen heinera jauts-araztea oro, nahi badute eta ez badute, zer da, baizik ere libértatearen zangopear ezartzea?

Horra egia. Elizako buruzagiek bezala, zentzuak dio, garbiki eta goraki; gizop bakoitza banazka har, ala populu guzia batean, ororen kaltetan dela erlisionerik gabeko eskola.

« Engoítik hontan garenaz geroz, 1882<sup>eko</sup> legearen arabera, ez behar holetan gehiago eskolan erlisionerik aipatu, goazin mintza lege hortaz.

Nori esker dugu Frantzian lege hori? Zenbat ozka, zenbat mail ditu iraganak hastetik hurat, hōgoi-ta zōrtzi urthez? Zinez libértatearen emaita zutena gogoan, ala kentzea? Bakea, ala gerla?

Eta zer zen hor apezpikuen eginbidea : mintzatzea ala mutu egoitea?

§ 1. Iduriz, lege hori bi gizonen burutikakoa da. Hek ziren Paul Bert eta Jules Ferry. Izaitez heien gibelatik zagon gordea framazonen banda guzia.

Hor agertu zirelako biek etzuten bertzerik ahoan, baizik ere segurki errespetuz betheak zirela erlisionearentzat; etzela zeren hor nehor ere deusen beldur izan. Choilki etzuten nahi legean ezarri Jainkoaren izena. Badelako izena bederen han emaita sobera zitzeien.

Jendea beldurtu zen, ez baitzuen alabainan nehorik holakorik igurikitzen, are gutiago galdatzen. Elhea jalgi zen, eta egia : gure erlisioneari zirela hor aihur. Ezetz. Baietz.

Bazterrak kechatzera zoazila ikusirik, eta beldurrez beren legea eskuetan geldi zakioten, alegia zinez, hitzeman zuten, behin ezetz errana, eskolako liburuetan ezarriko zituztela *Jainkoaren alderako eginbideak*. Ez gehiagorik ez, baina bederen hitz hoik.

Zenatorren bilkuran goraki erran ere zuen *Ferry* ministroak :

« Ezta egia, erlisioneari diogula nahi gerla egin. Ez, ezta gure chedea : *Jainkoaren ezartzea eskolatik kampo.* »

Handik laster, alegia zinez mintzo, errientei berak izkribuz igorri zazkoten hitz hauk :

« Hurrei eskolan zerbeit erakasten diozuetenean, gogo emazue, eta erran zuen buruari :

« *Balitz hor, ene aitzinean orainche, haur hautarik edo zoinen aita, gizon zuzen bat delarik, nahiago lukena ez nadin mintza haren haurrari hola, zer egin ? Ez mintza ; egon ichil ; solas hura utz.* »

Aspaldi du, elhe zuri hoik haizeak eremanak dituela. Berek emanalehenik, beren legean barne, *Jainkoa*, kendu dute geroztik.

Berek aithortua da : beldur zirela burhasoen, ba eta orduko errienteen ere ba, Jainkoaren baithako sinestea, haren izena bera eskolako liburuetarik hola kolpez kentzeko. Hartakotz utzi zuten behin sartzera. Gero ikus.

Handik bospasei urtheren buruan, berriz haste gerla : behar dela kendu, kendu legetik Jainkoaren izena ; kazeta tzar guziei su dariote, horren galdez.

Hainbertzenarekin ministro buruzagiek errientei debekatzen diote, haurrak berekin elizarat eremaitea ; baeta chantrogoa ere utz-arazten.

Kurutzeфикak eta erlisioneko marka guziak oro kentzen eskolatarik ; eskolan katiachimaren erakastea ez haizu, ez ikastea, ez eta agertzea ; kondenatua, katiichima ; dagola eskolatik kampo.

Orduan da hasten eskolako liburuetan, katiichimaz bertzalde hurrek zituztenetan, liburu hek oro higatuz berri arau, gerla bat miletan itsusiagoa, goihengarriagoa, katiichimaren kasatzea baino.

Liburu hek berritzearekin bata bertzearen ondotik, non ere baitzirea aiphu, han hemenka, Jainkoa, Ama Birjina, Kurutzea, Ebanjelioa, Eliza, Aita Saindua, izen hoik oro, hitz hoik oro, erlisioneko nor edo zeren orhoitzapenik den gutiena zaukatenak oro kendu dituzte ; karrakatu oro, thona batzu bezala.

Bertzeak bertze, beren buruen ahalge ere ez baitire, horrela *berriturik* eta zaukaten hoberenaz *mozkindurikako* liburuen saltzaileak. Darraikiotela, bizi direno, kopetan, egitate okaztagarri horren marka ezin karrakatuzkoa.

Noraino jautsiak, zenbeit sosen irabazteko !



Huna non hasten diren Parisen gaindiko errientak, oro haro eta erasia : « heiek segurik ja zenbeit urthe. huntan utzia dutela beren eskoletarik kampo Jainkoa, legeaz acholarik gabe. »

Heiek eta hek idurikoek, elgarretara biltzen direlarik urthean behin, galdatzen dute : ken ditzoten eskoletako liburuetarik *Jainkoaren alderako eginbideak*.

1894<sup>an</sup> kentzen daitzute legetik hiru hitz hoik. Aspaldiko chedera horra non diren helduak.

Mailka goazi. *Ecole neutre* bethi : lehenik Jainkoarekin, gero gabe, gero kontra. Mailetik mailera, gero-ta makurrago, eta beherago.

Bakearen-gatik etzela behar aiphatu eskolan Jainkorik..., nonbeit han gira ! Bethi ahoan dute eta orai anhitzek haren izena, hitza blasfemio dariotela. Errabian jazarri nahi Jainkoari. Beren kazetetan oihu : ez dutela barkatuko, Jainkoa ezeztatu arte ; *burhasoek nahi ala ez*, beharko dutela utzi haurrek Jainkoarekilakoa ; ja anhitz errientek beren saila ederki deramatela.

*Aulard*, liburu kondenatuetarik baten egileak oihu egiterainokoa bere kideko gazte multzo baten aitzinean : « Eztezagun erran erlisioneaz eztugula nahi kendu ; *kendu nahi dugula dezagun erran.* »

*Briand* ministro buruzagiak bertze framazon bilkhura batean : « Buru barnean argi duen gizona, berak bereaz egiteko gei dena, *bera da bere Jainko.* »

Harrigarri ez denez : urguluaren erhokeriak noraino deramatzan !

*Ligue de l'Enseignement* delakoak ager-arazten duen liburu batean, irakurtzen dire hitz hauk : « Zorion osoa gutartean ikusi eta gozatu nahi badugu, ezta bakarrik behar Eliza suntsitu. *Behar da Jainkoa bera hil* ».

Eskoletako liburutegi ahal duten guzietan ezarriko dute liburu higuigarri hori.

Anhartean, pozoina bethi barnago sarthuz doa. Zerk nahi duzue gibela ditzan pozoinatzaleak, buruzagiak alde dituzteno ?

§ II. Ikusteko, behin bethikotz egia garbiki : zer chede zuten lege hori egin dutenek, zinezko libertatea, ala gu katolikoek ezartzea beren zangoetan, so hunat othoi.

Nork egina da lege hori ? Nork galdatua ? Nork onets-arazia

espantuka, eta beren bozaz gero nork finkatua? Framazonek eta heiekilakoek; gure erlisionearen etsaiek. Lege horren kontra nork ditu ahal zirenak oro erran eta egin? Katolikoek. Hori bera aski litake, gauzak diren bezala chuchen ikusi nahi dituenarentzat.

Bertze lege tzar guziak bezala, framazonen gordegailu ilhunitarik jalgia da lege hori; 1879<sup>ean</sup> hasi ziren gainaren hartzen. Geroztik hunat ez dire gelditu; bainan urhatsean doazi, aldian jauzi handiegirik egin gabe ahalaz.

Ikusteko da egiazki hogoi-ta hamar urtheren buruan, gerla izigarri hunen hastapenean, Gambetta zenak bere lagunei ziona, estakuru den gutienekorik gabe guri jazartzerakoan :

« Goazin emeki, eztiki. Chuhurra badugu, eztezagula odolik ichur. Horrek ditu galdu Erreboluzione Handiko gizonak, zeren eta odolak odola galdatzen baitu. Guillotinaren orde, bota legea. Ez fraide, ez apez lepho moztetik gabe, urkatuko dugu Eliza legezko bilurrez. Luzeago izanen da, bainan segurago.

« Bertzalde, goazin aldian urhats bat. Jo lehenik jende chehearen bihotzean errorik gutiena duten fraideak, Jesuistak; gero gizonki komentu guziak; gero armadetako omonierak; gero eskola libroak, eta azkenik herrietako apezak.

« Gure aitzinekoek, oro batean aurdiki nahiz, jende guzia beren kontra altcharazi zuten. Guk aldian bat aurdikiz, ahulduko dugu emeki-emeki etsaia. Hastetik berehala elizen hesteari lotzea, erhokeria bat litake; bainan Frantziako Eliza chutik daukaten beso guziak aurdik aldizka, banazka, ... *l'affaire ira toute seule*.

« Gu ikusiz gero-ta bethi azkarrago, katolikoek azkenean utziko dituzte beren elizak hesterat, komentuak eta eskolak hesterat utzi dituzten bezala. Eta gero, hor izanen ditugu bethi gure alde, ... alde ez bada, bederen ez kontra, *tous les modérés*, bethi legea norat baitago eta harat daudenak ».

Kopeta berarekin eta bardin itsuski dire mintzatu eta mintzo bethi legearen egile ala begirale *buru* guziak; aitzinekoak bezala bardin, ondokoak. Oro framazon, edo heien esku makila, protestant. Batzuek mana, bertzek obedi berehala.

*Ligue de l'enseignement* delakoaren medioz, ahurrean dute framazonek errientea; hunen medioz, eskola. Ba, eztute gordezen. Oihuka diote berek aski gora.

Berek diote : chede guzietarik lehena dutela gure erlisionearen ezeztatzea Frantziatik. Heien buruzagietarik batek dio : eskola guziak, arte laburrik barne, beren eskuko izanen dituztela.

« Gure chedea, dio bertze batek, framazonen bilkuran mintzo delarik, da : zer nahi eginen badugu ere, Frantzian erlisionea bizitzerat ez uztea ; urkatzea emeki-emeki, urthetik urthera lege berriak eginez apezten kontra, azkenekotz elizak hetsi arte ».

Chede hortaratzeko, eskolan dute beren indarririk handiena egin gogo. Beude berak mintzo.

Huna lehenik inzpektor ohi bat, framazona ; hitzez hitz, hura zer dion : « Eskola *laikoa* ezta irakurtzen, izkiriartzen, kondatzen ikasteko, bainan ba *erlisione katolikoari gerta egiteko*. Han ikasiko dute haurrek, sinestearen ukatzen.

« Lehenbailehen hortaratzeko, Freren eta Seroren eskola guziak hetsirik, jabetuko gira guhaur eskola guziez ; eta orduan burhasoek, nahi ala ez, beharko dauzkute beren haurrak utzi : haur heieri deus ez diotegula buruan sar-arazi, idurituko zauku, apezten kontra altxatuak ikusten ez dituguno ».

Huna bertze bat, aspaldi ziona : « haurrak apezten eskuetarik osokiatheratzeko, deus etzitzaiola halakorik, nola eskola laikoen-tzat dirua miliunka chahatzea ».

Hastapeneko elhe zuriak oro chede egiazkoaren gordetzeko baizik etziren beraz.

*Viviani* ministroak aihortzen du : etzela gure eskoletan erlisionerik aiphatuko, gezurra zen. Gezur *beharra*, izituak zitezkenen lokar-arazteko.

Ahalge ere ezta erraiteko orai, demboraren buruan : « *Bere aldia egin du gezur horrek ; bazterrerat utz dezagun ordu da, nahiz behin ederki zerbitzu egin daukun horrek. Orci goazin agerian : Egundaino estugu bertze chederik ukan, baizik ere gerta egitea, zinezko gerta erlisioneari, gobernamentuko eskoletan.* »

Aski erranik, bere nahiz gor eta itsu ez denarentzat. Behin gerla gordea, gero agerikoa, horra zer dioten berek.

§ III. Mintzatu behar zirena hor apezpikuak ? Ba araz, fedearren zain, arimen begirale direnaz geroz. Ala zer bada ? Holako gerla izigarria hor piztua, ja hedatua bazter guzietarat ; bethi aitzina hedatuz joaki, gerla gure sinesteari ; bakearen eta liber-

tatearen alde apezpikuen laguntzale behar litazkenak ari erlisionea suntsitu nahiz; eskoletako liburuak ala erakaslen ezpainak, oro gezur, Aita Sainduaren eta Elizaren kontra, eretikoen alde; haur ttipi batzuri erranka noiz nahi eskolegileak; nehork eztakiela, badenez Jainkorik, ez eta ere arima bat ba othe dugun ala ez; ongia eta gaizkia zoin-zoin diren ezagutzeko, ez eta ere gero araberan bizitzeko, eztela Jainko beharrik; jakintsun izaitea aski dela; erran nahi baita bakotchak nahi duena sinets eta egin; haurrei beraz hola mintzo eskolako buruzagiak, ... eta apezpikuek ez behar altchatu burua, ez boza? Beldurrez uko apezpikuak! Uko eta mutu, Jesu-Kristoren baithako sinestea bethi, beren azken hatseraino begiratzea hitzeman eta zin egin ondoan; hitzik ez erran behar apezpikuek, sineste hari oro laido, oro trufa, oro itsuskeria eta jazarkunde ari zazkolarik etsaiak; uzteko araz beren lanetik makurtu gabe, gure erlisione guzia hilik elhortzi arte!

Ez; oihu, oihu, bertzerik egiten ahal ez baginu ere.

Apezpikuen dretchoa zen hor eta eginbidea, mintzatzea goraki. Apezpikuen gain dire arimak; hautaz kondu zor diote Jainkoari. Hortakotz behar zituzten haurren aitak orhoit-arazi; haur hek heienak direla; hetaz jabetzera ez dutela behar utzi zuzen kontra nehor; burhasoei doakotela, beren buruen agertzeta, goraki eta azkarki, behar-orduan, eskoletako buruzagiek ahantz balezate, haurren arthatzale direla eta zain; ez nausi, ez jabe, haur hetaz nahi dutenaren egiteko; kondu behar diotela eman burhasoei beren hurrez.

Arren deus balinbada mundu huntan zuzen kontra denik, tirano egitate higuinarririk balinbada, hura ahal da haur heien arimak ebastea, burhasoen erlisionea gal-araziz.

Ba, eta frantses bezala ere, bazuten eskua, mintzatzeko apezpikuek.

Espantuka zioten hastean gure etsaiek: « Ah! zer Frantzia eginen dautzuetegun, hemendik hogoi urtheren buruko! » — Joan dire aspaldi hogoi urtheak, eta jin goiti, handitu, ordutik hunateko haurrak, Jainkorik gabe, katichimarik gabe, deus *altchagarririk* gabe altchatuak; kendu dituztenen ordainik ezin hatzeman baitute oraino. Adi zazue: orotan oro errangura dire, gizon bilkhura, herrietako buruzagi, etebetako nausi, burbaso, guziak bardin; nehork eztuela gehiago burutziarik egiten

ahal oraiko haurrekin, ez oraiko gaztekin; eskuetarik joanak direla.

Huna, gorenik mintzo, chifre batzu.

Kriminel gazteak doblatu dire; lohikeriak galdu dituenak doblatu baino gehiago, urthetik urthera; araberan emendatuz doazi haur beren buruen hiltzaleak; lau miletarik bederatzitara jauzi egin berri dute.

Hogoi urthez doblatu da, orotara, gizon-hiltzalen nombrea. Gutiz gehienek hamasei, hogoi-ta bat urthe, arte hori adin. Soldadogoari ihesi joanak igan dire, hogoi urthez, lau miletarik hamabortz mila eta bortz ehunez goiti. Heien ordain eiki hartu dituzte jaz soldado, hameka milaz gehiago presuner ohi; ihizi onak, bertzen etsemplu.

Hoik guziak eta holako zenbat oraino ikustearekin, Frantzia desohoraturik errekarat deramatela, ez orhoituko apezpikuak, frantses direla! Bihotzak ez gaindi eginen, hoik ezin iretsiz!

Behar ederrez derabilate Frantziaren dirua besagainka, deus hoberik ez egitekotz!

Bardin zeie, apezzen alderako herra emendatuz balinbadoa. Asko etsempluren artetik huna bat. Hogoi urthez petikako hiru muthikok buruz buru egiten dute Parisen haur multzo baten erdian zoon apez batekin. Ikusi orduko, ahora jin itsuskeriak erran eta tiro apezari; bera kolpatzen dute eta haur bat hiltzen.

Abokatak tribunalean erran duena, basa ihiziak baino areagokoak dire holako gaichtaginak, jende hiltzea josteta zeienak; apez hiltzea, pesta. Apeza heientzat, mamu beltza da.

Alabainan non ikasi dukete, nork zer erakatsi diote bertzerik? Herrak herra lan.

Buruzagiak berak gogoetatzen hasiak dire; batzuek dematzatela oro edanaren gain, alegia ez jakin, handiagorik badela. Juje batek zion berriki — handia baita, nola duen aithortu — hobenduna hor, eskola dela.

Gure alde eztaukaten kazetak eta oro mintzo dire: deus onik ez dutela ikusten ez ikasten, oraiko haurrek; ordu litakela, zerbeit egin, eskoletan haurrak hobeki altchatzeko. Zer ere baita, bada! hor eskas bat, huts bat, lehenbailehen bethetzeko litakena.

Eta gu bakarrik apezpikuak behar ginitazkela egon, hitzik erran gabe!

Ez, ez; erlisionearentzat bezala, Frantziarentzat galdatzen dugu, Jainkoa sar dadin berriz eskoletan; haren alderako eginbideak ikas ditzaten haurrek. Bakarra da Frantzia, deus diren erresuma guzien artean, eskoletan Jainkorik gabea. Ahalgea, desohorea ez den aski, horra ondorioak. Gaztigna haste.

Khen erlisionea, hil Jainkoa, eta gero ikus. Horra zer dugun ikusten. Eta orainokoak sarrihagokoen aldean deus ez.

Baderabilate hemen asko elhe makur. Dezotegun ihardets, bederen zenbeiti.

§ I. Diote; buruzagiek eskolei begi datchikotela, eta esku; edo zoin errientek hitz bat erran baleza legeak aiphatzea debekatzen dionik, bereak balituzkela zalhu, eta garratz.

Erraiten ba hori, ahoz eta izkribuz; zer sineste duen merezi, badakigu. Ezta, ez ministrorik orai, nahi lituzkenik hartu bere gain, *Ferry* zenaren alegia zinezko hitzak: *estueta behar eskolan errientak den gutiena ere hunkitu erlisionea*. Zer derasan, galda lezokete berehala ministro hari bertzek.

Deputatuen bilkuran bozetarat emana ere izan da egun hoitarik batez, bi deputatuk galdaturik, argi bat garbiki hor egitea: bai ala ez, erlisionea nahi dutenez hunkitu gabe utzi eskolan, legearen egilek hastean hitzeman bezala; bai ala ez, eskola libroak utziko dituztenez libro. Galde horren egile bi jaunek (1) ihardetsi dute *Ba*, bertze zenbeit lagunekin; bainan deputaturik gehienek, ministroak aitzineko, boza eman dute *Ez*-aren alde; ez dutela, ez dutela utziko erlisionea bakean; eztugula zeren holako ametsik egin. Bakea? Eman hitzaren atehikitzea, hoi da galdea egiteko!...

Ez dire segurki gure gizonak hortarik ari. Urrun da. Ez denez bithi ere! 1882<sup>ko</sup> legea, berek egina, eta egundaino geroztik bethi lege dena, zertako ez duten beiratzen berek;... berek zertako duten hausten lege hura, galdatzen diotegunean apezpikuek, hor hasten zaizku oihuka, mehatchuka: gaudela ichilik, gure onetan.

Errientak berak hobendun legeari buruz, eta berak heien hutsaz errangura direnen aiornatzale.

Eskolako legea, beren lege hura noiz nahi kolpatzen duten errientei nehork hitz bat sekulan; ichil ditén.

(1) Pradet-Balade eta Bonnevey.

*Morizot* delako batek egirik eskolan izigarriko athermaldiak, aita batek tribunalera deitzen du eta kondenarazten. Berehala kazeta, deputatu, ministro eta guziak jartzen dire haren alde. Igortzen dute toki handiago batetarart; datchikola, loth lege berri baten egiteari : *errient errepublikanoak* direlakoan beiratzeke beren etsaietarik.

Bizkitartean ikusirik jendea kechatzera zoala, bazterrerat emana dute geroztik errient hura, erretreta on batekin saritzat.

Gure departamenduan, *Herrereko* herrian, errientak zer nahi baderasa gure erlisionearen kontra. Burhasoek inzpektorari izkriba; erreposturik ez. Errientak kazetetan aithor bere solasak; diolarik, eztela beldur, inzpektorra higi dadin.

Bizkitartean higitu, mintzarazi lekhukoak; ikusi, egiak zirela oro, eta hortan gelditu. Errient hura herri hartan bethi, burhasoen nahiaren kontra; bainan bederen badu lekhu bere eskolan.

*Herveé* deithu bat baita, ditaken gizonik galgarriena, erlisionea eta Frantzia bardin hastio dituen, harek zion egun hoitarik batez : « *Onthus* doazi errientak. Ehun bilkura baino gehiagotan ja, ene liburuak hautatu dituzte, haurren eskuan emaiteko; ba eta inzpektorrek deusik ez erran. »

Ministroak ere, hitzik. Beldur, edo acholarik ez.

Apezpikuak mintzaten bagira, kalomniatzen ditugula errientak eta gobernamentua. Ichilik balinbagaude, aitzina bethi bere sailari etsaia, gero eta gehiago kopetarekin.

§ II. Diote : sobera galdatzen dugula. Hoberik ez badukegu, aski behar lakigukela, deus gisaz batere ez dadin aipha erlisionerik eskolara.

Eztezakegu ordean. Elizak eztu hori onesten ahal. Ezinbertez jasan ba; onets, gauza on, zuzen bat bezala, ez; katoliko bati eztakioke hori ontsa.

Bertzalde alferretan elheketa artzea da; adichkide ala etsai, zinez mintzo diren guziak hitz bereko dire : sekulan aiphatu gabe uztea erlisionea eskolan, ez ditakena dela.

§ III. Diote oraino : Angleterran, Ameriketan, hemengo lege bera delarik, deus gehiago ez dutela galdatzen hango katolikoek. Barkatu; han eta hemen legea ezta batere bardin.

Angleterrako legeak manatzen du eskolan othoitzia eta Liburu Saindutik irakurtzea ; uzten ditu bertalde haizu eskolan erlisioneko kantika sainduak eta zeremoniak. Bakarrik debekatzen duena da : nahi ez duten burhasoen haurrei erakastea erlisionerik eskolan.

Norte-Amerikan, erlisioneaz han orotarik delakoan, ezta haizu eskolan berøchkunderik egitea. Bainan orok bethi othoitzetik has eskola ; Liburu Saindutik irakur. Errienta mintzatzzen ahal erlisioneaz, Jainkoaz, Jesu-Kristoz ; bakarrik ez haizu haurren, ez burhasoen sinesteari gaitzi zaionik deus, ez eta berak eztuela sinesterik, erraitea ez haizu.

Ea Frantziako framazonek nahi luketenez hemen hein hori lege ?

§ IV. Apezpikuak hola mintzatzea, zuhurtzia othe da ? Bala-kite bederen segur, komprenituak izanen direla eta sinetsiak !

Beren eginbidearen bethetzeko apezpikuek ez dute jakite beharrik, ondorioak araberako izanen direnez. Jainkoaren eta Elizaren manamenduetarik zenbeit utziak dituzte askok bazterrerat. Ez direa hor bethi bardin manamendu, bethi bardin predikatzen, anhitzentzat alferretan izanik ere ; predikatzen, bethi, gobernamentuari hortako baimena galdatu gabe ? Manamendu hek beiratuz, giristino anhitz salbatzen dire ; bertze anhitz galtzen, hek hautsiz. Hola izanen da bethi.

Jesu-Kristo Gure Jaunaren trahitzea litake, beldurrez, lotsaz, nehorekin ez makurtu nahiz, han egoitea, nehorat higitu gabe, hil-hila, etsaiaren aitzinean, Elizaren hitzaz ez balitz baino gehiagoko acholarik gabe.

Holakoek gaituzte galtzen ; holakoek lotsarazten onak ; izitzen, etsiarazten dudakok ; holakoei esker gaina hartzen gaichtagienek.

§ V. Ba, bainan hoinbertze harok ez othe du, ororen buruan, on baino kalte gehiago eginen ? — Etsaien ardurako athermal-dia hori ; ba eta katoliko zenbeitena ere.

Kalte handiagorik haurren arimentzat, zer litaken, gaude. Hogoi-ta hamar urthez guk ikusi, guk jasan, guk egiterat utzi ditugunak hor direlarik oro, Frantziaguzia lekhuko, nor da, zinez uste dukena oraino, pazientzia hartuz, ichilik egonez, bi-



hotza hauts ginezokela behar-bada etsaiari ? Hain uzterrak baitire bardin ! Ez, ez ; gu uzkurrago eta hek azkarrago ; guk aphilago beheiti bizkarra, eta heiek besoa gorago altcha guri ukaldika.

Erranen dute : hautsi-mautsi bat ez ginukenez nahi egin ? Zerentzat ? Baginu zerbeit galtzekorik oraino ; bainan ez daukutea oro kenduak ? Dugun atchik bederen ohorea.

Mintzo dire amandaz, preondegiz, guri Frantziako lurraren gal-arazteaz. Bertze guziak eginik, zeri loth gehiago eztakiten egundainoko guziena da ; ba eta marka, indarrrik hoberenak higatu cheak dituztela.

Zinezko fededun, apez, apezpiku, guziek burua gorarik erranen diotenean : « zuen legeak eztire zuzenak, eztiotet obedituko ; nere kontzientziak debekatzen daut », uste duzue bada, oro betan emanen dituztela preso, edo khenduko Frantziatik 90 apezpiku, 50,000 apez, eta milaka giristino aita familiakoak ? Orduan lege hauk eroriko dire berak lurrerat. Bihotzik idorrenek, gogorrenek badaukate zolan errespetu izpi bat beren fedea goraki agertzen dutenentzat. Indarra baizik bere alde eztuenari jauziko zaio durduza bat, ikusiz, adituz oro libertatez, kontzientziaz eta zuzenez mintzo zaizkola.

Deusek hunkitzen ez dituenak mustro batzu dire. Mustroek ez dute irauten.

Ororen buruan, nahi ala ez, gerla dugu ; gerla bat izigarria. Ez giten lotsa. Jainkoarekin gireno, azken hitza gure dugu.

Bakotchak bere eginbidea bethe dezala.

Guk gurea bethetzen dugu, egia hauk hemen erranez, eta betheko bururaino. Hanbat gaichtoago sinesten ez gituztenentzat.

Apezek zuen eginbidea betheko duzue, ahal bezen eztiki, amultsuki, bainan garbiki eta beldurrik gabe adi-araziz egia. Beira zuen gain diren arimak. Ez giten izan Liburu Sainduetan aiphu diren *zakur mutu* hek bezala, ikaran bethi beldurrez, arthaldea otsoek jaterat utzi arte.

Artzain onak, beharrez, bere bizia emaiten du bere ardientzat.

Eta zuek, burhaso giristinoak, jarraik zoin zuen herriko apezzei. Nor da zuen ongiari atchikiagorik ? Jainkoak eman daitzuen haurrez beharko diozue kondu bihurtu hari berari. Ezta nehor mundu huntan, ahal dakizue hori, nehor, zuen haurrez jabe di-

takenik, heien arimakzuenak ez bezalako bilhakaraztekotan. Jainkoak galdatuko dautzue, beztitu ditutzuenez eta hazi; ba eta ere heien arimaz atchiki duzuenez artha.

Lur huntako jujen aitzinean, gizon-hiltzale gazte batek oihu egiten zuen berriki : « *Ene burhasoek giristinoki altchatu banindute, ez nintzen gillotinarat igan behariko.* »

Agian zuen haurrak egun batez agertzen direlarik Jujé Handiaren aitzinean, ez diote erranen : « Jauna, zure kontra altchatu banaiz blasfemioka, ene burhasoen falta da ; gorputzeko bizia eman ondoan, acholarik gabe utzi nute, arimakoaren galtzerat. »

Duela bi urthe, hanche, Betroniako herri batean errientak hautsi zuen eskolako kurutzefika. Burhasoek itsaskeria hori ezin jasanez, hitzhartu zuten elgar : etzatela gehiago haurrik eskolarat igorriko errient hura han zeno.

Legeko gizonen aitzinera behar izan ziren agertu. Heien buruzagiari ama batek ihardetsi zion : « Jauna, ene semea ezta gehiago eskolarako ; hogoi urthetan eremanen duzue, hunen aita ereman zinuten bezala ; bainan ene haurraren arimaz jabezterat etzaituztet sekulan utziko. »

Hitz eder hoik hor irakurtzearekin, begiak bustiko zaitzue, ama eskualdunak, zuen baithan ahapeka diozuelarik : nik ere behar-orduan beiratuko ditut ene haurrak, deusen ez nehoren beldurrik gabe.

Burhaso giristinoak, badakigu etzaretela zuen eginbideari uko egitekotan. Zuen hurrei zuen erlisionea nahiko diozute osorik utzi. Jainkoaren benediziona jaits dadila zuen gainerat. Harek saristatuko zaituzte mundu huntan berean ; zuen haurrak izanen dire zuentzat onak, amultsuak, obedientak oraidanik ; eta gero, handitu-ta giristinoki bizi direlarik, agian beren aita ama zaharren sokorri eta bihotz-altchagarri.



